

❧ Hitz eta Pitz ❧

Elkarrizketa:

ATTON OLARIAGA


Antton Olariaga Aranburuk (Usurbil, 1946) 1974an Zeruko Argian plazaratu zituen lehen marrazkiak. Geroztik testu liburuak, haur eta gazte literatura eta prentsa jazten ari da. Paperak egunero garrasi egiten omen dio esanez marrazkilaria dela. Sariak aitortu diote, azkenik, Anttonen maisutasuna. Egunero-egunero harritu egiten gaitu bere grafismo eta umoreak. Bere lanek, besteak beste, Sempé, Robert Crumb, Doré eta Txirrita ekartzen dizkigute burura eta begira. Helduen ilustrazioa erreibindikatzen dabil azkenaldian. Honetaz eta hartaz izan gara solasean eta jolasean.

Hitzak:

IÑAKI MARTIARENA OTXOTORENA,
MATTIN

Argazkiak:

XABIER UBEDA



«*Zuriguneak ez dit beldurrik ematen*»

BOTE PRONTOAN:

Behinola: Zer idatziko luke gaur egun Hormaspraikok?

Antton Olariaga: Paretak motzegiak izango lituzke.

Behinola: Sagardotegian zutik ala eserita?

A. O.: Tente.

Behinola: Zer dela eta tinta, txinatarra da?

A. O.: Ez dago dudarik, pintzeletik beti koleta zintzilik gelditzen zait.

Behinola: Viagra hartzen al du Zakilixutek?

A. O.: Hori Mattini galdetu.

Behinola: Zure lanean zer nahiago duzu, mendiko etapa ala erlojupekoa?

A. O.: Sprinta.

Behinola: Argiñanok sukaldaritza klaseak eskaintzen ditu telebistan. Marrazkigintza eskolak emango al zenituzke?

A. O.: Marrazkiak frijitzen ala labean egiten ikasiko banu, dudarik gabe.

Behinola: Mantxaren Kijote sentitzen al zara?

A. O.: Bai, nahiz eta Santxo Panzak gauzak finkatu.



Mattin eta Antton Olariaga

Behinola: Edurne Uria adituak zure alderdi «kamaleonikoa» azpimarratu izan du. Estilo eta erre-gistro batetik bestera pasatzeko gaitasunak harritu egiten du. Ados al zaude?

Antton Olariaga: Ez dakit umea izatea eta kamaleonikoa izatea gauza bera den, edota estilo finkatu gabeko gabezia ote den. Dibertsio moduan hartu nahi nuke ilustraziogintza. Estiloa finkatzea ez da nire kezka nagusia izan, testuarekin lotura horrek bai kezkatu nauela. Idazleak transmititzen duen mezuarekin zerikusia izaten saiatu naiz beti. Ez naiz, ordea, kontziente estilo kontu horretan zer nolako saltoak ditudan.

Behinola: Zein da zure txikitako oroitzapena? Ba al duzu gordeta nonbait zure txikitako marrazkirik?

A. O.: Fisikoki ez ditut gordeta baina buruan bai. Komikizalea nintzen oso. Gogoan ditut liburuetako sainduen irudi horiek. Akordatzan naiz etxean bagenuela Robinson Crusoe liburu bat, Doré irudigile frantziarrak ilustratutakoa, zoragarria. Era berean, indiotako komikiak atsegin nituen. Zaldiak asko gustatzen zitzaizkidan. Saiatzen nintzen bertatik kopiatzen, sekula ez kalkatzan, nire onerako. Askatasunarekin lotzen nituen zaldiak. Erromatarren jantziek ere txoratzen ninduten eta xehetasun guztiekin kopiatzen ahalegintzen nintzen, behin eta berriz.

«Txikitan oso gustukoa nuen zaldiak eta indioak marraztea.»

Behinola: *Gerra eta borroak marrazten zenituen?*

A. O.: Ez, ez, ... xehetasunak eta aparte, marrazki solteak. *Hazañas Bélicas*-eko tanke eta urpekariak kopiatzen nituen. Oso erakargarriak dira urpekariak.

Behinola: Noiz erabaki zenuen ilustraziotik bizitzea? Nola etorri zen erabaki hura? Bat-batean etorri al zitzaizun ala guztiz naturala izan da? Kontaiguzu prozesu hori.

A. O.: Ezinezkoa da horrela erabakitzea, zir-kustantziak ez baitaude gure eskuetan. Nik aha-legina erabaki nuen. Gustukoa nuen medioa. Arte Ederrak egin, displinaz lana egin eta eskua eta burua landu. Nire lanak prentsan zein publizitatean behin eta berriz onartuak zirela ikusterakoan, desafioa hasi zen: zergatik ez? Etorrizuna bola batean ikusi gabe, poliki-poliki.

Behinola: Zer abantaila eta desabantaila ditu Euskal Herrian eta euskaraz lan egiteak?

A. O.: 1975, 1976... urte haietan terreno berria zen oso. Arlo askotan lana egiteko asmoa bazegoen eta niri hortxe erdian erortzea suertatu zitzaidan... Zorte handia izan nuen. Desabantaila nagusia seguru asko erreferente falta litzateke. Kanpoan bai, baziren marrazkilariak, baina hemen ez. Euskal Herrian jende guztia hasiberria zen, onerako eta askotan txarrerako... Konpetentzia faltan botatzen nuen, izan ere lehia akuilua baita hobetzeko...

Behinola: Egunero-egunero tira argitaratzen duzu *Euskaldunon Egunkarian*. Nola da posible lan eritimo horri aurre egitea? Kosta egiten al zaizu?

A. O.: Edozein profesiotan bezala, ezinbestekoa da burua ureta-

tik ateratzeko erresistentzia eta ahalegina. Lana gustukoa denez, gogoz egin behar da. Aspertzeko arriskua nabarmena da. Horrexegatik, jakina, zirrikitu bat utzi behar diozu ondo pasatzeari, umorea ere badago eta. Gainera, zerorrek ondo pasatzen baduzu, garantia ere bada lan hori hartzen duenak ondo pasatzeko. Su txiki hori beti piztuta mantentzean datza sekretua. Nekea eta aspertzeko arriskua badago. Orduan norberak bilatu behar du zirrikitu horri, batzuetan grafikoa izango da eta beste batzuetan, hitz jokoren bat, esaldiren bat... Badira errekurtsioak ondo pasatzeko.

Behinola: Mugatua eta zentsuratua sentitu al zara noizbait? Eta autozentsurarik? Kontatu zure esperientzia.

A. O.: Bai kasuren bat, baina oso oso urruti gelditzen da. Nire zorionerako askatasun osoz lana egin ohi dut. Autozentsura beti dago, zure galderan adibidez. Dena dela, azpimarratu nahi nuke autozentsura, askotan, ez dela moztea. Gehitzea ere bada autozentsura.

Behinola: Zer nola eragiten dizu komikiak? Nola dakusazu komikia eta ilustrazioaren arteko zubi hori? Non sentitzen zara gusturago?

A. O.: Suerte handia da bi munduak tartekatzea. Bakoitzak bere legeak ditu. Elkarri kutsatzea nahita nahiezkoa da eta aberasgarria oso. Ilustrazio bati komiki kutsu eman ahal diozu eta komiki batek ilustrazioak izan ditzake. Baina beti ere kontutan hartu non zauden eta zer adierazi nahi duzun. Batetik bestera salto egiterakoan atsedena hartzen duzu. Jakina, bakoitzaren legeak errespetatuz. Medio batek bestearekiko moxrontza tristea irudituko litzaidake.



Antton Olariaga


Hausturak eta loturak norberak jartzen ditu, menua ez errepikatzearen. Harremanak beti daude, eskuan zein inkontzientean. Denak du eragina: kaleko egoera batek, zinemak, komikiak, bizipenak,... bost axola zait eragina, baldin eta produktua ona baldin bada.

Behinola: Aurreiritziz ikusten da komikia. Agian egile askok ilustrazioan aurkitu dute komikigintzan falta zitzaien errekonozimendua. Ados al zaude?

A. O.: Ez dut garbi ikusten bata bestearen gainetik daudenik. Azken batean testu eta irudien bitartez kontakizunaz ari gara. Hemen merkatu aldetik gainbehera dago, baina Frantzia, Belgika eta hainbat lurraldetan komikia maila sozialean oso bizirik dago. Ez nuke lasterketarik planteatuko komikilari eta ilustratzaileen artean. Oso gustura sentitzen naiz komikia eta ilustrazioa egiten.

Behinola: Andu Lertxundirekin tandem moduan ari zara lanean aspalditik. Maxe sail bikaina egiten ari zarete. Nolako harremana bizi duzu idazleekin? Morrontza edo menpekotasunik eragiten al dizu? Idazlearen konplizitatea bilatzen duzu ala nahiago duzu libre ibili?

A. O.: Nire esperientzia oso anitza da. Proiektuak ere zerikusi haundia dauka. Ni beti ni naiz baina harremana beti aberasgarria da. Hala ere, ez nuke inolako peajerik ordainduko. Belarriak eta ahotsa behar-beharrezkoak dira harremana finkatzeko. Andurekin proiektu jakin eta puntual batzuek lotu naute. Proiektu konkretutan finkatzen da harremana. Oso lan interesgarriak daude gaur egun eta gustura egingo nuke hainbat idazlerekin.



Antton Olariaga

Kontuan hartzekoa da, bestalde, harreman horretan badirela beste zenbait elementu ere: argitaletxeak, editoreak, banatzaileak. Idazleekiko harreman hori hitzetik paperera pasa behar dugu. Ondoren saltzen ikasu behar dugu, ausardiaz.

Behinola: Irakurle zorrotza eta fina zara. Izan al duzu idazteko asmorik sekula?

A. O.: Tira, irakurle zorrotza... arkatza zorrotza daukat beti... Aha! legintzen naiz gozatzen. Zorionez lagun idazleak badituz eta beraiei

esker gozatzeko aukera daukat. Liburu hau eta beste gomendatzen didate. Askotan, argitaratu aurretik, idazleek beren lanei buruzko iritzia eskatzen didate. Nahi gabe, irudietara emateko joera daukat. Irakurle soil aldetik lagundu eta iritzi ematen saiatzen naiz.

Behinola: Goraipatua izan den zure maila ikusirik, nolatan ez duzu atzerrian argitaratu? Ez al da esportagarria zure lana?

A. O.: Argiratu izan dut zerbait... Bratislavako ferian adibidez. Egia da ez naizela saiatu. Alferkeriaz, utzikieriaz, auskalo... Dena dela, hemengoarekin burua nahiko bete nuenez, agian ez naiz saiatu. Hemengoarekin konformatu naiz, ez nau kezkatzen. Ez naiz bila joan. Etorkizunean, ordea, ez dut baztertzen aukera hori.

Behinola: Zer deritzezu zure lehengo lanei? Nola sentitzen zara zure lan zaharrak ikusterakoan?

A. O.: Lotsa sentitzen dut. Baina hori ona da, inkontzienteki eboluzio bat onartzen duzulako. Askotan ezuste atseginak hartzen dituzu.

«Zirrikitu bat utzi behar diozu ondo pasatzeari eta ezusteari.»

«Hutsunea kontzeptu espazial moduan ez dit enbarazorik egiten.»

Behinola: Kezkatzen al zaitu omenaldi garai honetarako? Jubilazioa burutik pasa al zaizu?

A. O.: Abaddia sariaren ostean sortutako ideia izan zen erakusketa antologikoa egitea. Oso polita izan da aspaldiko lagun zaharrak zintzilik ikustea. Gazi-gozaok dira sariak, alde batetik estimulanteak eta, bestetik, erraz asko ahaztu egiten dira. Dena dela, aurrera egin behar da.

Behinola: Behin eta berriz azpimarratu duzu jolasteko grina eta behar hori. Interesatzen al zaizu ilustraziogintza Artea den ala ez den eztabaida hori? Ilustraziogintza, ondo pasatzeagatik ez al da Artea?

A. O.: Aspaldi irakurri nuen Artea ez dela existitzen, artista baizik. Testu baten erreferenteekin egin behar da lana, baina horrek ez du esan nahi autonomia ere ez denik. Edozein artelantzan zeinek ez du erreferenterik? Testua izan, mundua ala ideia bat izan..., morrontza mailak dauka. Notario hutsa izandako ilustratzailea ez nuke apreziatuko gehiegi: hitzez hitz papera pasatzen duen morroia ez nuke kontutan hartuko. Osagarri eta ikuspegia osatzen laguntzen duen ilustraziogintzan sinesten dut. Zaila da batzuetan baina ahalegindu beharra dago. Horixe da helburua. Bestalde, edozein lanetan bezalaxe, sufrimendu puntua badu ilustraziogintzak: zirrriborroak bota, puskatu... gozamina berriz, dibertsioa litzateke, batetik bestera salto egitea. Umorea motxilan eramatea ezinbestekoa da bizirauteko.

Behinola: Ilustratzaile batzuk artera pasa dira (Erramun Landa, Juan Karlos Egillor... eta abar.) Tentaziorik izan duzu margolanak egiteko?

A. O.: Norberaren bilakaerak markatzen du pautak. Historian adibide ugari ditugu batetik bestera pausoa eman dutenak. Primeran

ikusten dut, baldin eta aurrerapausoa baldin bada. Mundu berri bat da margogintza: soportea, formatoa, teknika. Esperimentatu eta ikasteko baldin bada, oso ondo. Ez dakizuna errepikatzeko baldin bada... gaizki. Gogoia sentitu dut oleoa eta gozatu dut. Bain zirkuitu horietatik kanpo ibili naiz. Horizontaletik bertikalera gustora pasako nintzateke. Perspektibak, gorputza aldatu. Lan batzuk badituz eginak, baina oraingoz zaila ikusten dut. Aurrera begira, batek daki.

Behinola: Diseinuaz mintzatu gaiten. Kontatu zure esperientzia. Zer sentitzen duzu zuk diseinutako azala erakuslehoan ikusterakoan?

A. O.: Diseinua alderdi apasionantea da, objektuekin lana egitea baita. Artisau lana da. Liburua mimatu behar duzu. Saiatu naiz ideia garbiak eramaten diseinuan. Talde lana ere bada. Momentu batean zaila zena, ordenagailuari esker erraztu egin da lana eta ondorioz gozamina hanturatu egin da.

Behinola: Kaletik zoazela, erakusleihoei begira gelditzen al zara?


A. O.: Jakina. Zure lana esrakuslehoan ikusterakoan poza izugarria da. Ondoren konparaketa dator: duintasunez dago diseinutako? Desastre al da? Erosiko nuke? galderak badatoz. Partida gutxienez berdindu ezker, pozik. Oso epe motzeko iraupena dute erakuslehoan.

Behinola: Kezkatzen al zaitu salto handiek markatzen duten estrategiak? Diseinua ere aldatu behar al da?

A. O.: Beldur piskat sortzen dit estandarizazioak. Globalizazio hau gehiegi puztutzen baldin bada, lebertzazioa etorriko da. Argialetxe



Antton Olariaga



Antton Olariaga

txikiak desagertuz gero eduki zein itxura aldetik gauza asko galduko genuke. Txikiari errespetoa nahita nahiezkoa iruditu zait beti. Konpatiblea izan behar du datozen aldaketekin. Bestalde, globalizazioak etenik gabeko alfabetatzea eskatzen digu eta hori ona da.

Behinola: Teknologia berriak hemen ditugu. Nolako harremana duzu ordenagailuarekin? Ez al dago errazkerian erortzeko arriskurik?

A. O.: Ordenagailua eta aitzurra gauza bera da. Biak lanerako dira. Ezin zaio bizkarra eman. Hala ere gaindosiaren arriskua, egon, badago. Sormen lana ezinbestekoa da. Abantaila izugarria da ordenagailua baina ez nuke jainkotuko. Edukiaren gainetik ez da jarri behar, errespetatu behar da mamia, itxurakeria teknikoetan ito gabe.

Behinola: Marra oztopo al da zuretzat? Muga-
tzen al zaitu?

A. O.: Marra, ikusi, ikusten dut. Barruko eta kanpoko espazioen arteko borrokan dabil beti marra. Biziraute etengabeko batean. Mantxa berriz, plazerrarekin lotuko nuke, pintzela, errotilagailua eta ordenagailuari lotuko nuke mantxa: superfizie zabalak margotzeko, degradatuak...

uniformidadea..., tintak dituen matiz guztiekin..., mantxa oso mundu aberatsa da.

Behinola: Hainbeste urte lanean, oraindik ere ezuste asko izaten al dituzu zure lanean?

A. O.: Bat-batekotasuna da klabea. Funtsezkoa ezustea; aurreiritziz eta plantillaz lana egitea aspergarria da, gozamenerako oztopo litzateke, Zentzu txarrean: antisorgailu. Aldez aurretik dena finkatua baldin badago, zure burua ezustean harrapatzeko aukerarik ez duzu, kontatzeko gutxi daukazu. Zure buruarekin gaizki portatzen bazara, gauza bera gertatuko zaio irakurleari. Aukerak eskaini behar zaizkio ezusteari, egileak eta irakurleak elkarrekin gozatzeko.

Behinola: Zer da zuretzat zurigunea?

A. O.: Grabitate indarrarekin konparatuko nuke fisikan. Elkartu, aldendu, tentsioa sortzen duten guneak dira zuriguneak. Behar-beharrezkoa Ez dakit instintiboa den, baina gozamenerako atal oso garrantzitsua da. Batzuetan propio sortzen dituzu espazio horiek, beste batzuetan, berriz, ezustearen bidez sortzen da eta horrela sortzen denean bakean utzi behar da, bere horretan.

«Globalizazioa gehiegi puztuz gero, lehertarazazioa gertatuko da. Txikiari errespetua nahita nahiezkoa da.»

Behinola: Behin baino gehiagotan, nik nahi gabe hutsuneak betetzeko premia sentitzen dut...

A. O.: Bai ulertzen dizut, nik ere batzuetan sentitu izan dut premia hori. Badago eredu natural bat: oreka. Badugu oreka hori gordetzeko instintu bat. Oreka hori, marra mantxa eta zurigunearen bidez gordetzen da.

Hutsunea kontzeptu espazial moduan hartuz gero ez dit enbarazorik egiten. Ikustezina da indarren erlazioa. Gauzak bere tokian jartzen ditu, nahiz eta ikusi ez. Batzuetan betetzeko premia hori ere badago. Zilegi da betetzea, baldin eta asmo jakin batekin egiten baduzu, ideia barroko eta astun bat espresatzeko, adibidez.

Behinola: Nola definituko zenuke pintzela eta plumillaren arteko harremana?

A. O.: Pintzela plumillaren koinatua da; batekin zinera zoaz eta bestearekin bazkaltzera. Tren

batetik bestera salto egiterakoan eskuak nabari du, txirrindulariak etapa menditsutik etapa lau batera pasatzerakoan nabari duen bezalaxe. Lehendabizi egokitze eta kokapen lana egin behar duzu baina eskuak memoria ona duenez, gustura egiten duzu. Ezusteari bere zirrikitua eta txokoa utziz, beti ere.

Behinola: Hitz egin dezagun paleta eta koloreez. Nolakoa da zure kolore aukeraketa?

A. O.: Normalki ordenagailuan egiten da paleta aukera. Soporteak garrantzi izugarria dauka: paper mota, testura, gramajea... Teknikoki kolore batzuk zailagoak dira besteak baino. Saiatu behar duzu lana alferrik ez galtzen. Maiz inprentetan borrokan nabil kolore jakin bat atera ahal izateko. Zailtasunak zailtasun, ez dut esan nahi mugatu behar duzunik.



Antton Olariaga

«Sormenaren su txiki hori beti piztuta mantentzean datza sekretua.»

Ordenagailutik aparte, badaude bakoitzak maite dituen koloreak. Zuria da maiteena eta, beraz, hutsuneak ez dit beldurrik ematen.

Behinola: Tira Antton, mintza gaitzen etorkizunaz. Une honetan zeri begira zaude?

A. O.: Egunetik egunera egiten dira gauzak. Lehendabiziko kezka lanbide atsegin honetan jarraitzea da. Oso interesgarria iruditzen zait derri gorrezko lanak eta bakoitzaren inizatibaz bulzatutako lanak konpatible egitea. Derrigorrezko lanek sortarazten dizun presio puntu horrekin elkarbizitzen ikasi behar da. Zaila da norberaren gustuko proiektuetan soilik murgiltzea: margotu, komikia..., horientzat tartea bilatzea zaila da. Dena dela, gustuko lan horiek behar beharrezkoak dira gure langintzan aurrera egin ahal izateko. Oreka beharrezkoa da. Bestalde, ekonomikoki krisialdiak gurean ere jo du. Testu liburugintzan, literaturan, prentsan. Garai batean egiten ziren produktuak gaur egun zailagoak dira argitaratzen.

Dena dela ez naiz oso epe luzera begira jar-

tzen, nahiago dut eguneroko proiektuetan murgildu. Beti aurrera.

Behinola: Zer nolako etorkizuna du marrazkigintzak? Etorkizunean beteko al du funtziorik?

A. O.: Egile bakoitzaren arabera izango du etorkizuna marrazkigintzak. Nire kasuan behintzat, gustoko lanak diren bitartean, ilustrazioak iraungo du, baino ate guztiak ixten baldin badi-ra, ez dakit... Nire asmoa tresna berberekin lanean jarraitzea da. Ezinezkoa baldin bada, atea itxirik daudelako, bada beste zerbait bilatuko dugu eta kitto.


Behinola: Bestela, atea itxiz gero, ostikadaz bota, ezta?

A. O.: Edo atea pintatu.

Behinola: Zer kolorerekin?

A. O.: Segun eta noiz gertatzen den hori.

Behinola: Tira Antton, eskerrik asko eta ondo ondo segi. Eskuminak Zakiliri.



Anton Olariaga